

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak komunikazio eta lankidetzarako bideak ireki dituzte berdintasun-arloan

*Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaria bere euskal homologoarekin bildu da ostiral honetan, Gasteizen*

Viernes, 19 de febrero de 2016

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari Mertxe Leranoz eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari Izaskun Landaia bildura dira gaur, Gasteizen, eta bertan emakume nahiz gizonezkoen arteko berdintasun-arloko zenbait gai jorratu dituzte; aldi berean, komunikazio eta lankidetzarako bideen bitartez elkarlanerako harreman estu bat urratzeko borondatea agertu dute.



Bilerako parte-hartzaileak.

Bileran, bi zuzendariak emakumeen partaidetza soziala ikusarazteko beharra azpimarratu dute elkartegintzako mugimendua sustatuz, bai eta erakundeekin beren solaskidetzak sustatzeko beharra ere.

Aztertutako beste gai bat Berdintasunaren aldeko Udalerrien Sare bat bultzatzea izan da. Ekimen hori alor horretan konprometitutako udalerrietarako langune bat sortzeko behar nahiz garrantzirik sortu da; bertan esku hartzeko estrategiak ezarri eta partaideen arteko sinergiak indartuko dira.

Gainera, berdintasun-alorrean eta emakumeen aurkako indarkerian prestakuntza emateko beharrekin bat etorri dira; prestakuntza hori profesionalentzat izango zen; horrez gain, berdintasun-printzipioa zeharkako eran finkatzeari lotutako jarduerak sustatzearekin bat etorri dira.